



# PEPITA AMIANO ARREGI

45 URTE

UDALETXEAN LANEAN

Jone Idiazabal

**A**urten, oso ezaguna den emakume baten bizitza azaltzen Ahaleginduko naiz, Pepita Amiano Arregi hain zuzen. Pepita 1913ko Apirilaren 27an Erreenteriako Mastin jaio zen, 7 seme alabetan 2.na.

12 urte bete arte "Hijas de la Cruz"etan ikasi zuen eta gero Donostiara joan zen takigrafia eta ofizinetako gauzak ikastera. Senide batzuk Donostian sanitatearekin zerikusia zuen negozio bateko ofizinetan urtebeteko praktikak egin zituen.

Bere lehen lana 14 urtekin izan zuen Martin Etxeberria ka-lean, oso perfume preziatua egin zuten frantsez batzuk zeuka-ten fabrika batetan. 1931. urtean lanik ez zegoela eta kalean aurkitu zen, noski ezer egin gabe ezin egon eta josten ibili zen. 1933ko ekainaren 12an Udaletxean hasi zen lanean, oposizioak gainditu ondoren, herriko errolda egiten.

21 urtekin Pasai Antxoko Jose Kortajarena Zabalarekin ez-kondu zen eta Madrilera ezkon bidaia egin ondoren, senarra-ren etxera joan ziren bizitzera urtebetez, baina amarekin lotura ez omen da hausten eta berriro Mastira bueltatu ziren eta ber-tan orain dela 6 urte arte bizi izan da. Orduko bizimoduak ez omen zuen gaurkoarekin antza gehiegirik, lanetik atera ondo-ren Biteri kalean ibili beharrean, galtzerdi zaharrak josten edo beste zerbait egiten, etxean beti lana egoten omen zen.

Udaletxeko lanetan ere gauza ugari aldatu dira. Orduko al-kateek Udaletxearen aurrekontutik %2a kobratzen zuten, erre-presentazio gastu gisa. Obraren bat egin behar bazen, orain adineko burokraziarik gabe sinatzen zuen alkateak baimena, behar den bezala zergak ordaindu ondoren. Ez zegoen gaur eguneko kamioirik, laguntzailea karretila hartu eta agindutako tokira joaten zen obran lan egitera. Herrian 2 edo 3 aguazile-kin konpontzen ziren: serenoak eta egunez lan egiten zutenak zeudelarik. Garaia haietan dena eskuz egin beharra zegoen, izan ere informatika zer zen ere apenas usaitzen genuen, (gu-re herrian behintzat). Idazkaritzan, bera emakume eta euskal-dun bakarra bazen ere, lau langile zeuden.

1935 urtean Pepitak bere lehen semea izan zuen. Erditu, egun gutxi batzuk etxean pasa eta lanera itzuli zen. 1936. urtean Erreterian 9.500 biztanle zeuden, 1977.ean berriz 50.000 inguru. Kopuru honetara iristeko arrazoi garrantzitsuena 1958-1960 urteetako inmigrazioa izan zen. Orduan bai jaiotzen zirela umeak! Urtean 1200 bat ume jaiotzen ziren, gehienak kanpotarrenak. Garai haietan, Donostiako Maternidadean jaiotakoak zirenak han enpadronatu behar izaten zituzten, eta 5 urte igaro ondoren, bakoitza bere herrian enpadronatzeko aukera zegoen, noski funtzionamendu hone-kin errolda desorekatua zegoen eta alperrikako lana egiten zen.

Norbearen gurasoek beraiekin edukitzeagatik puntuak ko-bratzen zituzten eta adi egon beharra zegoen, ze batzu-batzuk beraien herritan eta Erreterian ere laguntza hori jaso nahi iza-ten zuten. Beste lan bat, pasaporteak egitera Gobernu Zibilera joan aurretik, Udaletxean bete behar ziren paperak gauzatzea zen.

Pepitak Alkate asko ezagutu ditu bere lan urte guzti horie-tan: Paulino Garcia eta Anselmo Viñaras guda aurretik eta gu-da ondoren Luis Etxeberria, Ramon Mugika, Joakin Lapaza, Luis Barinaga, Juanito Los Santos eta Natalia Casado.

1934-35ean tuberkulosia zabaldu zen ugari, jendeak trata-mentua ordaintzeko dirurik ez zuenez, Udala egiten zen Manteo hospitaleko gastuen kargu. Miseri handia zegoen, EAJ-PNVren "Emakume" taldekoek fabriketara joaten ziren arropa eta diru bila, gero behartsuen artean banatzeko. 1936.eko guda hasieran rasionamentuko lanean aritu zen Udaletxean, gero tokia txikia gelditu eta alondigan jarraitu zu-ten.



*Pepita ezkontzen zela eta egin zioten agurran, besteak beste, nere izeba Rexu.*

Urte hartako Irailaren 13an, reketeak Oiartzunen sartzea lortu zuten. Aurrez, Erreterian gauza bera egin nahi izan zuten baina karabinero pare batek mosketoiekin egindako soinua medio libratu egin omen ziren. Nahiz eta Erreteria oraindik aske egon, 2. haurraren zai zegoelarik, 23 urte bizkar gainean eta bizitzaz oraindik esperientzi gutxirekin, Bilbo aldera joan zen bere senitarteko guztiekin, 80 urteko izebaren ama eta guzti. Abenduaren 30ean jaio zen Bilbon bere 2. mutikoa.

Bilbora iritsi zirenean, bere aitak ezagutzen zuen "Emakume" taldean lan egiten zuen Erreteriarako Pakita Astibia ikusi eta Rekalde zumardiko 28 zenbakian lortu zien Pakitak azkar asko etxea. Maiz, Bilboko portuan kola egin behar izan zuten sardinak edo txitxarruak lortzeko.

Joan eta segituan, besteak beste, "Sota Etxean" inmigratuziorako lanean hasi zen, gero Gran Vian erreklutamenturako. Jose Antonio Agirre egunero ikusten zuen bere etxe ondotik pasatzen. Lehendakaria egin zutenean ere Pepita Gernikara joan zen une garrantzitsu hura bizi ahal izateko. Senarra, San Antonio eleiza zaintzen aritu zen hasiera batetan eta gero "Emakume" taldekoekin txofer bezala lan egin zuen. Lan hauetan Euskadiko diruarekin ordaintzen zieten baina Frantziatik bueltatzean kendu egin zioten guztia.

Italiano baserritar itxurakoak nola espetxeratzen zituzten ikusten omen zituen, zahar gizarajoak! "Carlton Hotelean" kazetaritzakoekin ere administratibo lanak egin zituen, iristen ziztaizkien parteekin hain zuzen. Zera dio, gudako albisteetan behintzat egunkariek dena gezurra ziotela, "ondo zijoala gauza" alegia, bistan egongo ez balitz bezala!

1937.eko urtarrilean Villarreal erasotu zuten Gasteiz har-

tzeko asmoarekin, eta gure herriko mutil askorekin osatua zegoen Itxarkundia batailoia han zegoenez, jende asko hil eta zauritu zen eta zaurituen artean bere anaia Genaro, Barakaldon "Hijos de la Cruz"ekoek zuten klinikara eraman zutena.

Nazionalak sartzera zijoaztela eta Bilbotik ihes egin behar izan zuen 1937.eko ekainaren 13an, senarra han geratu bazen ere. Pepitari buruz Udaletxean dagoen espedienteak (lana utzi zuenean ireki ziotena) "Zonalde gorritik Frantziara pasa zela dio". Lehenengo Barakaldora arrantzuko untzi batean, eta

*Pepita jubilatuz zenean egindako agurafarian.*



kapitainak bere gela utzi behar izan zion lo egiteko zeharo txorabiatua zegoelako. Barakaldotik Santanderra, eta ezagunik ez zutenez, hotel bateko lurrean lo egin behar izan zuten lehen gauean. Gero etxe bat bilatu zuten eta 8. egunean, etorri zen lehen barkuan, belar gainean lo eginaz eta patata egosiak jazez Frantziara iritsi ziren.

El Havreko portura iristean txertu bat jarri ondoren trenean Perigueuxera abiatu ziren, handik Urruñara joateko, amaren lehengusu bat han bizi bait zen. 2 anaia koskorrenak berriz, ezin izan zuten Urruñan gelditu, Baionatik Parisa eta gero Orlyra eraman zituzten, beste batzuk Errusiara eramanak izan ziren bezala. Tarteka Euskadiko Gobernuaren delegaturen baten bidez mutikoen berri ere jakiten zuten.

Senarra berriz tropak sartu zirenean, Antxora bueltatu zen, senideen negozioan lanean jarraituz.

Gorabehera guzti hauekin emakume eder honek 21 kilo galdu zituen, 61ean geldituaz. Hobe da soberan eduki horrela galdu baino! Alaz ere suerteduna izan zela dio.

Urruñara etorri ondoren Venezuelako Mentez lehendakari ohiaren alabaren etxean hasi ziren 3 ahizpak neskame lanean. Militar diktadore honen alaba (beste 80 bat seme alaba errekonozitu gabeak omen zituen) errege familiar indio batekin ezkondua zegoen eta beraien jauregian piszina, golf, tenis, eta 2 rolls zituzten, txofer beltz eta guzti. Eleizako asuntxoak Pepitari galdetzen zizkion emazte katoliko harek. Garai hartan ez zuen gosarik pasa, atezain lorezain, e.a. zituen jauregi hartan esnea eta etxeako oilakoetatik aparte, Pepitan senideek hartu zuten baserri zahar bateko baratzen landutako gauzak

izaten zituelako. Gero han lortutako artoa, perretxiku, babarrun, patata, azia e.a.ekin ostegunetan Donibane Garaziko perira joaten ziren salmentara.

Britaniako Lehen Ministro Chamberlain-ek gudarik ez zela piztuko esan arren hurrengo egunean 2. guda mundiala deklaratu zen. Honek harridura handia sortarazi zion Pepitari, orokorrean, gizonetako konfidantza gutxituaz. Hemengo guda, mundialarenaren froga bat izan zela dio, Alemanak Gernikan armak frogatu zituztela alegia. 1939. urtean guda mundiala hasterakoan hego Euskadira etortzea erabaki zuen. Beratik pasa ziren eta baita karabinerok koinaduari erositako gauza guztiak harrapatu ere!.

Udaletxeko espedienteak "Askatasunaren guda bukatu ondoren itzuli zela Espainiara" dio. Besteak beste, aipaturiko espediente honetan honako esaldi hauek azaltzen dira "Pepita Amiano abandonó su empleo con el propósito de permanecer alejada de su misión en la España Nacional en la que no quiso servir por su identificación con los rojos-separatistas... realizando acciones con una significación antipatriótica y contraria al Movimiento Nacional". (Esaguratsua goa izango delakoan, itzuli gabe utzi dut).

Haurdun zegoela eta bildurragatik alde egin zuela alegatzen zuen Pepitak berriro Errenteriako Udaletxean lanean has-teko aurkeztu zenean. Gero Gobernazioaren Ministeritzak arrazoi horrexegatik berriro lanpostuan onartu zezatela agindu zuen. Baina hori jakiteko modua parregarria izan zen. Espedienteak dionez Udalzaingoaren, Herriko "Mugimendua-ren" eta Goardi Zibileko Komandantziaren buruek txosten ba-

1935eko Udaletxeko kideak, herriko sendagile, maixu, e.a.ekin.





tean jakinarazi zuten bezala. Idatzi baten bidez 1949.eko abenduaren 30ean Udaletxera aurkezteko oharterazi zioten. Han joan zen 5 pezeta ordaindutako bixigua beso azpian zera-mala, zein izango bere sorpresa, idazkariak han etorri zen emakumeari lana berea zela esan zionean!

Beraz, soldatarik jaso gabe, baina jubilaziorako balio izan zitzaizkion 13 urte egon zen Udaletxeko lanetik kanpo, bere semeak gusto handiz zaintzen nahiz eta une larriak gainditu behar izan, zeren 1941. urtean 6 urte egingo zituen seme zaharrena, anjina batzuren ondorioz hil egin zen. Azkeneko bi mutikoak 1941. urtean eta 1946.ean jaioak dira.

Guda ostean, Udaletxean bete beharreko lanetariko batzuk kontribuzioa eramatea eta hilero errolda egin behar izatea zen. Bere lana estadistika izan omen zen. Oso oroimen onak ditu, lankidetasun oso ona izan zutela dio.

1954.eko abuztuaren 5ean, 51 urterekin, senarra hil zitzaion. Juanetetako ebakuntzaren ondorioz infekzio batekin, 8 egunetan kitto. Pepitak ere arazo berdina zuen anketan eta senarrari gertatutakoa gertatu arren, bera ere kirofanora joan behar izan zuen, suerte hobea izan bazuen ere.

1977.eko ekainean jubilatu zen, 45 urtetan lanean aritu ondoren. Ordutik hona etxeoekin besterik ez da ateratzen, an-

ketatik ondo ez dabilelako. Pepitak harreman gutxi dituela dio eta sentikor eta ezkortzat dauka bere burua. Nik berriz zera uste dut, agian orain ez dela gehiegi ateratzen baina bere bizitzan zehar ekintza ugari izan dituela eta noizbait baikor izan dela, bestela nondik atera halako indar eta kemena aurrera begiratu eta geldik egon gabe lanean jarduteko?.